



TENISA
2018ko ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak EUSKADIKO XXXVII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Tenis Federazioarekin lankidetzan, 2018ko maiatzaren 26 eta 27an, Arrasateko Musakola Udal Kiroldegian. Hauxe duzue jokoen araudia:

1. JOKO SISTEMA

Lurralde Historiko bakoitzak bi neska eta bi mutil izango ditu ordezkari, baita kapitain bat (aukeran) ere.

3na jokalariko BI TALDEk hartuko dute parte jokoa, denek denek kontra jokatuz. Talde bakoitzeko lehena, bigarrena eta hirugarrenak sailkatuko dira azken sailkapenaren arabera (fase hau hilaren 26an, larunbatez, jokatuko da).

Igandean, maiatzaren 27an, hirugarrenak beraien artean, bigarrenak beraien artean eta lehenak lehenen aurka jokatuko dute azken sailkapen bat suertatuz. Partida guztietan irabazleak 1,5 puntu jasoko ditu, hauek lurraldeko sailkapena eratzeko baliogarriak izango dira. Banakako partidak bukatu eta gero, guztiok guztion aurka binakako txapelketa jokatuko da, irabazleak 2 puntu lortuko dituzte lurraldeko sailkapenerako.

Banakako partidetan 4 jokotako 3 setetan onena baloratuko da eta tie-break bat jokatuko da 4 jokotan berdinketa gertatuz gero. Set batean berdinketa gertatuz gero, “tie-break” bat jokatuko da (7 puntutan).

Binakako partidetan 4 jokotako 3 setetan onena baloratuko da, puntu erabakigarriaren sistemaren bitartez, tie-break bat jokatuko da 4 jokotan berdinketa gertatuz gero. Set batean berdinketa gertatuz gero, “tie-break” bat jokatuko da (7 puntutan).

Txapelketa alboan izango diren bi pista irekietan jokatuko da.

Jokalari batek txapelketa bukatu aurretik justifikatu gabe utziko balu, banakako sailkapenean lortutako emaitza galduko luke eta bere lurraldeko taldea hirugarren postura pasako luke zuzenean.



2. PARTAIDETZA

2004 eta 2005ean jaiotako jokalariek bakarrik hartu dezakete parte, infantil kategoria alegia, eta dagokien Foru Aldundiak emandako lizentzia izan ezker. 2017/2018 denboraldian zehar lizentzia federatua duten edo izan duten jokalariek ezingo dute parte hartu.

Taldeak honela geratuko dira sailkatuta, zozketa egiteko irizpideak ondorengoak izan dira: Talde batean aurreko urteko txapelduna egongo da eta bestean txapeldunordea, finalik jokatu ez zuen lurraldeko lehenak zozketa bidez sartuko da taldeetan, eta beste jokalaria guztiak talde berean bi lurralde berdin ekidatuz sartuko dira.

- MUTILEN A TALDEA

1. BIZKAIKO 1-goia
2. GIPUZKOAKO 2-a
3. ARABAKO 1-goia

- MUTILEN B TALDEA

1. BIZKAIKO 2-a
2. ARABAKO 2-a
3. GIPUZKOAKO 1-goia

- NESKEN A TALDEA

1. ARABAKO 2-a
2. BIZKAIKO 1-goia
3. GIPUZKOAKO 2-a

- NESKEN B TALDEA

1. GIPUZKOAKO 1-goia
1. BIZKAIKO 2-a
2. ARABAKO 1-goia



3. SARIAK:

URREZKO – ZILARREZKO – BRONTZEZKO DOMINAK (neska eta mutiletan banakako eta lurraldeko kategorian).

4. BESTE BATZUK

Antolatzaileek jatekoa eta ura emango diete parte-hartzaile guztiei.

Behar dutenei autobus-zerbitzua eskainiko zaie (ordutegiak eta irteera- eta helmuga-lekuak jakinarazi egingo zaizkizue).

5. ARBITRAJEA

Jesus Paredes izango da jokoen epaile arbitroa (Arbitro Nazionalea da).

6. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

7. AZKEN OHARRA

Araudi honetan jasotzen ez diren kasuak Euskal Federazioaren lehiaketa-batzordeak erabakiko ditu eta bere erabakiak apelaezinak izango dira.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- A. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- B. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- C. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- D. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2018ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2018ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVII. edizioaren deialdia egiteko dena
- E. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2018ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2018ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVII. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- F. Euskadiko tenis federazioaren araudiak xedatzen duenari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeror, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.